



Planifikazio prozesua 2026

Herritarrengandik jasotako ekarpenen balorazioa

sarrera

Hernani Burujabe estrategiaren baitan, hirugarren urtea da Planifikazio Prozesua deritzona abiatzen dela; alegia, herritarren nahi eta beharrak ezagutu eta horiei erantzuna emateko prozesua. Oraingo honetan, 2026an, herriko beharren diagnostikoa galdetegi bidez osatu dugu da batez ere. Galdetegi honen emaitzak osatzeko, Auzo Elkarrekin ere bilerak egin ditugu. Galdetegiari dagokionez, 208 erantzun jaso dira.

Ekarpen guzti horiek bildu eta sektoreka antolatu dira. Ondoren, mahai sektorial bakoitzak, jasotako ekarpenen balorazioa egin du, plangintza sektorialetan horiek txertatzeko asmoz.

Dokumentu honetan, mahaiek burututako hausnarketa eta balorazioa jasotzen da sektoreka.

Proposamen bakoitzeko hurrengoak jasotzen dira:

- Proposamena bera
- Jatorria: galdetegia edo auzo-elkarrekin batzarra
- Mahaiaren balorazioa: L=Lantzen dugu jada / A=Aztertuko dugu zentzuduna baita / E= Ez dugu babesten.
- Oharra: proposamen hori onartu edo ez onartzearen arrazoiak.

elikadura

PROPOSAMENA	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA			OHARRA
	G.	A.B.	L	A	EZ	
Auzoan Herrilurreko eta Hernaniko produktuen jasoketa puntu bat ezartzea: Mariluts + Zikuñaga + Portu						Mariluts oso gertu dago Herrilurretik eta ez du zentzurik. Zikuñaga eta Portu auzoetarako banaketa puntu bat Karabelekon ezartzeko aukera aztertzen ari da. Banaketa zerbitzuari dagokionez, Berriak elkartea bere plan estrategikoa garatzen ari da eta horren baitan, banaketa zerbitzua aztertzen ari dira. Horrelako zerbitzu bat bertatik kudeatzea ikusten da elikaduratik baino, zerbitzu integralagoa eskainiko lukeelako.
Elikadura burujabetzari buruzko saio bat antolatzea.						Sentsibilizazio ekimenen urteko planteamendu bat egiten ari da. Jada egiten dira hainbat ekimen eta proposamena bertan txertatzen da.
Herrilur-i, Henase-ri eta Bertatik-eri buruzko informazioa						Jada egiten da. Aurrekoarekin lotuta.

zaintza

LERROA	PROPOSAMENAK	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA			OHARRA
		G.	A.B.	L	A	EZ	
1. Informazioa eta orientazioa zaintzan	Auzozaintza, Eltzekoa eta Maitelan bezalako baliabideen informazioa zabaldu; aholkularitza puntuak indartu eta kanpaina iraunkorra egin (buzoietan, espazio anitzetan).						Zaintzako ekintza plana berritzen ari da. Prozesu horren baitan, jasotako proposamen guztiak kontutan hartuko dira baina oraindik ez da ebatzi zeintzuk txertatuko diren ekintza plan horretan.
2. Auzozaintza sarearen hedapena	Auzozaintza programa auzo gehiagotara zabaldu (auzo bakoitzean martxan jartzea); auzozain sareak sustatu eta koordinazio minimoa bermatu.						
3. Sentsibilizazioa eta kultura bidezko aktibazioa	Zaintzaren errealitatea ikusgarri egin: kale-presentzia (panelak/esku-orriak), zinema kalean, antzerkia/dantza/arte ekintzak, herriko "pertsonaia" sinbolikoa, auzoko tailerrak.						
4. Hezkuntza eta belaunaldiarteko lanketa	Haurrekin eta ikasleekin saioak antolatu; belaunaldiarteko topaketak eta familia-ibilbide moduko ekimenak (Santa Barbara bezalako auzoetan) isolamendua murrizteko.						
5. Zaintzaileentzako laguntza praktikoa	Zaintzaileei informazioa eta aholkularitza espezifikoa eman; zaintzaileentzako lan-poltsa edo bitartekaritza-sistema sortu (kostuen eta irisgarritasunaren arazoari erantzuteko).						

6. Espazio komunitario berriak eta familia-espazioak	Auzo bakoitzean topagune/espazio berriak egokitu; "Familia gunea" bezalako proiektuetarako plaza gehiago sortu (eskaera handiari erantzunez).					
7. Ekimen komunitarioak sendotzea	Zaintzaldia eta eltzekadak bezalako ekimenak mantendu eta zabaldu; zaintzaren "soluzio komunitarioak" lantzeko saioak antolatu.					

etxebizitza

PROPOSAMENA	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA*			OHARRA**
	G.	A.B.	L	A	EZ	
Etxebizitza eredu berriak						
Etxe hutsak alokairura mobilizatu						
Etxe hutsak salatzeke kanpaina						Proposamena baloratu dugu baina duela gutxi egin dugu bat, eta tarte pixkat emango dugu.
Etxebizitza eskubidearen gaineko informazioa						
Udaleko etxebizitza sailaren jardun/ikusgarritasuna handitu						Egiten da, baina aztertuko dugu nola indartu.
Gazteekiko etxebizitza politika aktiboak						Baliteke nahikoa ez izatea, baina dauden aukera gehienak baliatzen saiatzen ari gara. Udaletik batez ere sustatuz; Emanzipa, Gaztelagun. Zuzkidurazko etxebizitza gazteentzako ere bai (“etxe-beltza” eraikinen); eta hutsunea programa. Edonola ere, indartu behar dela hartzen dugu aintzat.
Adinekoentzako etxebizitza politika aktiboak						Eredu berrien baitan lantzen hasi gara; jardunaldiak, talde interesatua osatzen saiatzen ari gara etxebizitza kolaboratibo formak aztertzeke.
Etxebizitza tipologia handiagoak						Etxebizitza parkea historikoki familia tipologia batentzat eraiki da (5 kide), baina gaur egun gero eta pertsona gutxiago bizi dira bizi-unitate bakoitzean. Kasu puntualak salbu, logikoena tipologia txikietarago joatea da (lur berdinean etxebizitza gehiago lortzeko aukera ematen dutenak, egungo bizi-unitateei egokituz).

Leihoak handitzeko aukera egin					Etxebizitza mahaiak ez du araudi urbanistikoa aldatzeko ildo bere gain hartzeko gaitasunik, ezta asmorik ere. Egitekotan, gainera, modu oso xehean egin beharko litzateke, Alde Zaharrean, esaterako, ezinezkoa da ondare-babes araudiagatik.
Gehiago ez eraiki					Lehentasuna eraikitako parkea mobilizatzea da, hori argi dugu. Edonola ere, larrialdiari erantzuteko, epe ertainean zerbait eraiki beharko dela asumitu behar dugu, beti ere printzipio hau gure eginez: jada artifizializatua dagoen zoruan eraiki.
Atzieta kaleko etxea moldaketak					Etxebizitza mahaiak ez du horren gainean eskumenik, ez du lanketarik egin, ez dagokigu.
Karabelekoko BPE					Ez da onargarria BPE etxebizitzak hutsak egotea, aztertuko dugu zergatik den horrela, eta pisuzko arrazoirik ote dagoen horretarako.

bioaniztasuna

LERROA	PROPOSAMENAK	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA			OHARRA
		G.	A.B.	L	A	EZ	
1. Naturalizazioa	Kale/plaza/aparkaleku “grisak” berde bihurtu: zuhaitzak, zuhaixkak, lore-guneak; zoru iragazkorrak eta asfaltoa kentzea leku gogorretan; A-15/AP-1 ertzetan zuhaitz-landaketak.						Bioaniztasun mahaia birdefinizio prozesuan dago eta oraingoz, ez da ekintza berririk landuko.
2. Zuhaitzen ordenantza + kudeaketa	Zuhaitzen ordenantza: inbentarioa, mantentze-protokoloak (mulching/ongarritzea), mozketa-ordezkapen arauak; moztutakoa beti ordezkatu; inbaditzaileen kontrola.						
3. Aire-kalitatea (neurketak + gardentasuna)	Aire-kutsaduraren neurketa eta analisisa (udal gailuekin); emaitzen argitalpen erregularra; kutsatzaile kimikoen eta osasunaren arteko jarraipen-txostena.						
4. Industria kutsatzaileen diagnostikoa + kontrola	Industria kutsatzaileen mapa/diagnostikoa (Cominter, AMR, paperera...); kontrol eta neurri zuzentzaileak; arrisku handiko jardueren berrikuspena eta (beharrez) kokalekuz aldatzea aztertzea.						
5. Zarata-kutsaduraren plana	Puntu beltzen neurketa eta mapa; murrizketa neurriak eta jarraipen publikoa; salaketa/alerta kanalak indartu.						

6. Ur-ekosistemak eta uholde-arriskuak	Urumea ibaiaren garbiketa eta mantentze-plan urterokoa (uda ostean); gainezkatze puntuen azterketa eta konponbideak (Landareko eremua); uraren presentzia txertatzea.						
7. Hondakinak + mikroplastikoak	Kale-zaborraren prebentzio/bilketa hobetzea; Zubipeko futbol zelaiko kautxua kentzea; “Joko Garbia” moduko poltsa biodegradagarrien banaketa sistema.						
8. Bioaniztasun-hezkuntza eta komunitate-programak	Intsektu-hotelak, urmael/biodibertsitate jarduerak; habia-kaxak eta parke/baso berreskuratzeak (Ave Maria...); tailerrak (Karabeleko ingurunea) eta familia-ibilaldiak.						

PROPOSAMENA	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA			OHARRA
	G.	A.B.	L	A	EZ	
Wifia bermatu komertzioetan						Merkataritza indartzeko lerroaren baitan, mahaitik aparte, Udala lantzen ari da hori.
Komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalpena						Edonola ere onartzen da ildo hau etengabe landu eta indartu egin behar dugula. Argi lotu ekhilur Hernani Burujaberekin, hobariak jarraituak direla komunikatu behar dugu, eta alor aktibista indartu.
Bestelako monetekin osagarritasuna						Oarsoaldean sustatzen hasi diren “gure monetarekin” harremanean gaude, hasieratik, baina oraingoz ez daude bateragarritasuna gauzatzeko baldintzarik.
Dendariek lantzea ikusgarritasuna monetarena					Beti da zer hobetu, bestalde: zigilu, edo identifikatzaile argiagoak, adibidez. Aintzat hartu, eta Berriak elkartarekin batera landuko dugu.	
Txanpon fisikoa						Bere momentuan baloratu zen, baina ezezkoa erabaki zen: elementu sinboliko moduan baliagarria, baina tokiko garapena indartzeko ez horrenbeste; eta gainera nahasmendua sortu dezake.
NFC sistemarekin ordaindu						Ez da denontzat irisgarria, mugikor guztiek ez dutelako.
Hobarientzako aurrekontu zuzena handitu						Zuzenean, egun bezala, ez da handituko partida, handi samarra da. Edonola ere, aurreikusten dugu, aplikazio berriarekin, bestelako moduak izango direla ekhia zirkuitura sartzeko, eta horrela, tokiko ekonomiari ekarpena egiteko.
Udal tasak, edo Biteri ekhiz						Udal zerbitzu/tasak tokiko monetarekin ordaindu ahal izatea helburuen baitan dugu, baina aplikazio berria behar dugu horretarako, eta gero, zatika baino, trantsizioa batera egin (hots, ez Biteri, baizik eta udal azpiegitura guztiak).

Komertzioaz harago					Aplikazio berria garatzen ari gara, eta horrekin aukerak biderkatuko dira: ordainketak helbideratu eta bestelako agenteak (enpresak, hornitzaileak, udala) sisteman modu eraginkorrean txertatzeko.
Donazioak egiteko aukera, eragile sozialei					Berez, oxidazioa eragileei bideratzen zaie, eta hori modu demokratikoan egiten da. Egia da: ez da oso ikusgarria aplikazioan hori nola egin, eta beraz hori hobetuko dugu aplikazio berriarekin.
Digitala bakarrik ez, analogikoa					Badago giltzaria ordainketa txikiak egiteko.
Erroldatu berrientzako saioetan, ekhilur					Garrantzitsua denek izatea sarbidea, eta horrela etorri berrientzako saioetan Hernanik eskaintzen dituen aukera/eragileen artean ekhilur sistema lantzea aztertuko dugu.

energia

PROPOSAMENA	JATORRIA		MAHAIAREN BALORAZIOA			OHARRA
	G.	A.B.	L	A	EZ	
Pisizinetako biomasa kendu						Berriztagarriak hedatzearen printzipioen kontra doa, eta ez dugu pisuzko arrazoirik jaso biomasa kentzeko.
Biteri eraginkortasun energetikoa						Egiten ari gara.
Munizipalak bizikleta elektrikoan						Munizipalei pasako zaie iradokizuna eta aukera egotekotan, elkarrekin landuko dugu.
Industria sektorearekin lanketa						Egiten ari gara.
Energia kontsumoaren murrizketa saritzen duten Udal laguntzak						Egino diren laguntzak pobreziaziari lotuak izango dira.; gainera badaude laguntzak baina tasen hobari bidez (obra tasak, esaterako 0,25 jaisten dira birgaitzeek eraginkortasun energetikoa ekarriko badute).
Kale argiteriaren kontsumo jaitsi, smart teknologiak						Egiten ari da.
Enherkom sozializazio kanpaina gehiago						Egiteko prestatzen ari dira.
Fakturak ulertzeko tailerrak ugaritu						Bulegoaren bidez egiten ari da eta egingo dira etorkizunean.
Turbina txikiak Urumean eta auto igarobideetan						Aztertzen ari da, batez ere hidro-elektrikoak egiteko (Fagollaga) Enherkomek badu "ideien kutxa" horrelako berrikuntza proiektuak lantzeko (turbina txikiena); eta komunitatea engaiatuz gero landuko da.

Balkoietan plakak					Gure eredua da kolektiboa (elkarrekin sortu eta elkarrekin banatu) komunitatea egin nahi dugulako, baina gainera: eraginkorragoa da (prezio eta energia sorkuntza-erabilera aldetik). Horregatik ez balkoietan, eta ez indibiduala.
Eolikoak jarri					Irizpide ezberdinak daude eta printzipioetako bat da: lurralde antropizatuan lehenik, hori guztia probestu arte, lur berririk ez okupatu. Udalak azterketa egin du, eta ikusi da oraindik badela (estalpean probestuz) ekoizpen gaitasuna fotoboltaika bidez eta gainera merke samarra da (eolika baino merkeagoa). Beraz: 2027ari begira ez da kontenplazten energia mahaiak horrelakorik bultzatzea. Bestalde: lanketa egiten ari da eolikoaren aurrean ze posizio edukitzeko. Energia murrizketan jarri nahi dugu fokua, ez hainbeste sorkuntzan (nahiz eta beharrezkoa izan).
Sabaietan mini-eolikoak					Ez dago teknologia garatua hori modu eraginkorrean egiteko.
Hidroelektrika berritu					Esan bezala aztertzen ari da.
Kontzientziazio kanpaina					Egiten ari gara.
Garraio publikoa (aldiriak eta lurraldebus bereziki) hobetu					PMUSa egin da eta norabide horretan neurriak zehaztu dira; egia da gauzatu egin behar direla.
Auzikideen erkidego txikiak					Komunitateak 5km distantzia izango du laster, barne hartzeko aukera denak. Ikuspegi sozial, energetiko eta ekonomiko batetik ez du zentzurik azpi-erkidegoak biderkatzea.
Aerotermita Karobietan					Gure eredua ezpala da gehiago, horri heldu nahi diogu.
Etxebizitzaren isolamenduak aztertu eta hobetzeko laguntzak					EAZ (ziurtagiria) laguntza aurrezpenaren gainean etorriko da, eta horrek aurre-lanketa eskatuko du eta prestatzen ari gara hori bertatik bertara emateko. Hobariak birgaitzetan.
Ur galdara komunitarioak					Etorkizuna hortik doa, baina hori kasuan kasu jabe-komunitateak egin beharko luke. Etorkizuneko obretan aintzat hartuko da.
Des-hazkunde plana					Hernanik badu energia trantsiziorako plana, baina egia da Hernani hazten ari dela, ez urritzen bere metabolismoa. Hazten ari gara, baina efizientzia da indartu behar dugu; eta hortik jo behar dugu. Deshazkuntza gauza potoloegia da plan batera ekartzeko.

Geotermia garatu					Bero-sare proiektutik kanpo geratzen diren proiektuetan aztertuko da, baina bero-sarea da lehentasuna.
Biomasa garatu					Egiten ari gara.
Ekhitan pagatu: proiektu pilotua zabaldu					Egiten ari gara.
Osinagan: auzokideek informazio banaketak					Harremanetan jarriko gara.
Eguzki plakak hedatzeko proposamen zehatz ugari izan dira.					
EP: Etxeberriko frontoian (aterpe bat jarrita)					Pribatua da, lagapena bat negoziatu beharko litzateke auzo elkartearekin eta aztertu daiteke.
EP: kiroldegian					Bigarren lotean dago, egingo da.
EP: Poligono industrialean					Lantzen
EP: Autobian tunel egituraz					Aldundiaren eskumena da, guk ezin dugu sustatu.
EP: Oronan					Negoziaketan.
EP: Galarreta frontoia					Uralita da eta ezingo da epe motzean.
EP: Jauregi eskola zaharra					Ez, txikiegia da.
EP: EPO					Lanketa egiten ari da instalazioak egiteko, hezkuntzakoa da (EJ) eta lanketan.
EP: Santa Barbara					Aztertuko da, xehe-xehe; afekzioak egon daitezke-eta.
EP: Anbulategi zaharra					Jarrita daude.
EP: Biteri					Ez, txikiegia.
EP: Udal Eraikinak					-Aukera dagoenetan egiten ari da.
EP: Atsegindegi					Ez, teilatu txarra.
EP: Landaren					Ez da egokia.
EP: Harriatsu eskola					Txikiegia da.
EP: Elizen teilatuak					Arazoak, teilatu egoera eta zailtasun tekniko/administratiboak. 2027 begira ez da lehentasuna.

EP: Hilerria					Jarrita.
EP: Haurtzaindegia					Jarrita.
EP: Hernaniko mendietan					Esan bezala, antropizaturiko lurraldean egingo da lehenik.
EP: LIDL					Ez dago negoziatzeko biderik.
EP: Mercadona					Ez dago negoziatzeko biderik.
EP: Ertzaintza kendu, eta bertan					Ez dago gure eskur.
EP: Errapia eraikinean					Txikiegia da.
EP: Zikuñagara igotzen den magalean					Lehenik antropizatuan; baina aztertzeke modukoa etorkizunari begira.